

PRENTSA OHARRA

Barakaldoko barruti judizialean bulego judizial berria abian jarri izana aitzakia harturik, protokolo ekitaldia egingo dute irailaren 14an. Izan ere, honako hauek bertaratuko dira besteak beste: Catalá Justizia Ministroa eta Erkoreka Eusko Jaurlaritzako Administrazio eta Justizia Sailburua. Hori dela eta, Euskadiko Justizia Administrazioan ordezkariak dugun CCOO, ELA, CSIF, LAB eta CGT sindikatuok aprobetxatu nahi dugu zenbait gogoeta egiteko.

Justzia Administrazioa oinarrizko zerbitzu publikoa da eta, hala izanik, ezin da iraganean ainguratua geratu; aurrera egin behar du zerbitzua ematen dion gizarteak aurrera egiten duen erritmo berean; eta hari eskaini behar dio zerbitzu publiko eta doakoa. Justizia Administrazioko langileek egitura berriak eratze prozesuan parte hartzeko desioa eta beharra dute, dagozkien ordezkarien bitartez; egunero bulego judizialetan gertatzen diren akatsak eta hutsak zuzentze aldera, ideiak eta proposamenak eskaini. Tamalez, gaur arte, ez gaituzte aintzat hartu. Sindikatu gisa, ganorazko negoziazio eza salatu nahi dugu, Ministerioaren zein Eusko Jaurlaritzaren Justizia Sailaren partez (bakoitza dagokion arloan); aldi berean, arbuiatzen ditugu murrizketa politikak eta privatizatze asmoak, zeinek justizia unibertsala eta doakoari eraso egiten dioten. Anbizio handiko proiektu honetan partaide guztiok daukagu zeresana: epaileek, fiskalek, idazkariak, abokatuak, prokuradoreak, legelariak eta, jakina, epaitegietan eta bulego judizialetan lan egiten duten langileak ere bai. Dirudenez, beharginok enbarazu egiten dugu. Alabaina gure lankidetzarik gabe proiektuak zailtasunak izango ditu ezartzerakoan eta horrek eragin kaltegarria izango zerbitzuaren kalitatean.

Horiek horrela, bi administrazioei deia egiten diegu botoak jasotzeko antolatutako propaganda ekitaldiak egiteari utzi eta ekin diezaiotela benetako eztabaidari eta eragindako alde guztiarekin lan egiteari.

Hori heldu artean eskatzen diegu gure lanpostuekin politika ez egiteko.

Sindikatuok Barakaldoko epaitegietako langileak deitu ditugu astelehenean, 10:45etik 11:15era eraikinaren sarrera nagusian, egingo dugun protestara joan daitezten.

Bilbon, 2015eko irailaren 11n

